

HITZEkin B2/C1

Autoikasuntza

æk
22.korrika

HITZEkin

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

HELBURUAK

Sekuentzia didaktiko hau KORRIKA hurbil dugula egiteko pentsatuta dago, eta helburu nagusia du ikasleak KORRIKAn parte-hartzen animatzea (norberaren herritik pasatzen denean korrika eginez, KORRIKA laguntzaile bilakatuz...). Horrez gain, mailari dagozkion eduki batzuk ere landuko ditugu.

OHAR GARRANTZITSUA

Ikasmaterial honek euskarri nagusi bi ditu: **"KORRIKA, historikoa!"** jokoa eta **"HitzEkin"** aldizkaria.

- **"KORRIKA, historikoa!" Euskal Herri mailan egingo den joko digitala da.** Jokoa, bideo batzuen laguntzaz, KORRIKAn historia apur bat hobeto ezagutu ahal izango dute ikasleak, hamarkadaz hamarkada; ondoren, telefono edo ordenagailu eramangarrien bidez, galdera batzuei erantzun beharko diete. Jokoa ikasgelan egingo den arren, puntuazioaren jarraipena euskaltegi eta Euskal Herri mailan egingo da, eta sariak ere banatuko dira.
- **"HitzEkin" aldizkarian, KORRIKari buruzko informazioa zabalduko da,** tartean jokoa planteatuko diren galderei erantzun ahal izateko hainbat datu. Aldizkaria erabilita, ikas-jarduera batzuk egingo dira, eskoletan.

Sekuentzia honi ahalik eta atarramenturik handiena ateratzeko, komenigarria da jarduerak prozeduran azaldutako hurrenkeran egitea, bai eta **"KORRIKA, historikoa!"** jokoa euskaltegi mailan (eta, ahal dela, Euskal Herri mailan ere) aldi berean egitea ere.

Jarduera honetako ariketak online bideratu nahi badituzu, egin klik lotura honetan: [HitzEkin B2/C1](#).

PROZEDURA

1. EZAGUT DEZAGUN KORRIKA

Jarduera honetan, "HitzEkin" aldizkariaren laguntzaz, KORRIKari buruzko informazio interesgarria gogoraraziko diegu ikasleei: historia apur bat, aurtengo KORRIKari buruzko datuak... Horrekin batera, KORRIKA laguntzaile izaten animatuko ditugu.

- Helarazi ondoko dokumentuak ikasleari:
 - a. Jarduerak egiteko jarraibideak eta orrialdeak (3.-13. or.)
 - b. **"KORRIKAn aditua zara? GALDERAK"** ikus-entzunezkoa.
 - c. "HitzEkin" aldizkaria (B2/C1).

2. "KORRIKA, HISTORIKOA!" JOKOA

Jolas digital horren bitartez, KORRIKAn inguruan sakondu nahi dugu, modu ludikoan, mugikorrek edo ordenagailu eramangarriak erabiliz. Jokoa Jokoa bakarka edo mintza-saioan egingo dugun arren, puntuazioaren jarraipena euskaltegi eta Euskal Herri mailan egingo da, eta sariak ere egingo dira.

- Egoki iritziz gero, proposatu ikasleari **"KORRIKA, historikoa!"** jokoa parte hartzeko. Jokoa bideratzeko jarraibideak "KORRIKA, historikoa! jokoa" dokumentuan daude.

1. KORRIKAn aditua zara?

- Ikusi arretaz “KORRIKAn aditua zara? GALDERAK”, eta planteatzen diren galderen erantzunak jaso (4.-5. or.).
- Erantzun zuzenak eman dituzun jakiteko, bilatu horiek “HitzEkin” aldizkarian.

2. “... eta korrika izan zen.”

- Irakurri “... eta KORRIKA izan zen” (“HitzEkin” aldizkarian, 2.-3. or.), azpimarratu interesgarriena iruditu zaizuna, eta azaldu idatziz zer azpimarratu duzun eta zergatik. Eman idazlana tutoreari, zuzen dezan.
- Egin “Puntuazio-markak” ariketa (6. or.). Ariketa egin bitartean, aldizkaria itxita izan beharko duzu. Puntuazio-markak sakonago landu nahi badituzu, puntuazio-markei buruzko azalpenak dituzu kaier honetan (10.-11. or.).

3. KORRIKako istorio bitxiak

- Irakurri istorio bitxiak, eta saiatu gezurrezkoa identifikatzen (7.-8. or.). Gogoan izan gezurrezkoa identifikatzeko ez dela beharrezkoa KORRIKA oso ondo ezagutzea; nahikoa da berriak arretaz irakurtzea.
- Azaldu hipotesia zure tutoreari.

4. izan zaitetz korrika laguntzaile.

- Irakurri Iñazioren lekukotasuna (“HitzEkin” aldizkarian, 8. or.). Irakurri ondoren, egin “Eta KORRIKA laguntzailea izan ez banintz?” ariketa (9. or.).

KORRIKAN ADITUA ZARA?

ERANTZUNAK JASOTZEKO FITXA

Irakurri arretaz bideoaren galderak eta erantzunak, eta aukeratu erantzun zuzena. Bi aukera izango dituzu galderen erantzunak asmatzeko. Lehenengo saiakeran, idatz ezazu X bana aukeratutako erantzunak markatzeko; bigarren saiakeran erantzunen bat aldatu nahi baduzu, ezabatu aurrekoa, idatzi X bat erantzun berriaren ondoan, eta margotu biribil bat X horren inguruan

1. GALDERA

 A.....

 B.....

 C.....

 D.....

2. GALDERA

 A.....

 B.....

 C.....

 D.....

3. GALDERA

 A.....

 B.....

 C.....

 D.....

4. GALDERA

 Egia

 Gezurra

5. GALDERA

 A.....

 B.....

 C.....

 D.....

6. GALDERA

 Egia

 Gezurra

7. GALDERA

 Egia

 Gezurra

8. GALDERA

 Egia

 Gezurra

9. GALDERA

 Egia

 Gezurra




























10. GALDERA

 A.....

 B.....

 C.....

 D.....

11. GALDERA A.....  B.....  C.....  D..... **12. GALDERA** A.....  B.....  C.....  D..... **13. GALDERA** A.....  B.....  C.....  D..... **14. GALDERA** A.....  B.....  C.....  D..... **15. GALDERA** A.....  B.....  C.....  D..... **16. GALDERA** A.....  B.....  C.....  D..... **17. GALDERA** A.....  B.....  C.....  D..... **18. GALDERA** A.....  B.....  C.....  D..... **19. GALDERA** A.....  B.....  C.....  D..... **20. GALDERA** A.....  B.....  C.....  D.....

PUNTUAZIO-MARKAK

Ondoko esaldiak "... eta KORRIKA izan zen" testutik atera ditugu, eta puntuazio-markak kendu dizkiogu. Jarriko dizkiozu berriro, aldizkariari begiratu gabe?

- A. ONDOKO PASARTEKO MARRATXO BATZUEN GAINEAN KOMA FALTA DA (,), BESTE BATZUEN GAINEAN PUNTU ETA KOMA (;), ETA GAINERAKOEN GAINEAN EZ DA PUNTUAZIO-MARKARIK BEHAR. OSATUKO DUZU TESTUA, FALTA DIREN PUNTUAZIO-MARKAK IDATZITA?**

Horrela_ 1980ko azaroaren 29an_ euskaltzale adoretzu batzuk_ Oñatitik atera ziren korrika_ lekuko bat eskuan zutela_ eta hamar egunen buruan_ abenduaren 9an_ Bilboraino iritzi zen lekuko hura_ eskuz esku pasatuta_ Euskal Herria muturretik muturrera gau eta egun zeharkatu_ ondoren. Euskararen lurraldean_ berriro ere_ "Ezina_ ekinez egina".


- B. BIGARREN PASARTE HONETATIK, PUNTUAZIO-MARKAK KENDU DITUGU, ETA HORIEK GUZTIAK TESTUAREN AZPIAN BILDU DITUGU. IDATZIKO DITUZU BERRIRO DAGOZKIEN LEKUETAN?**

Edizio batzuetan debeku mehatxuei egin behar izan zieten aurre antolatzaileek bigarren KORRIKAN esaterako Nafarroako gobernadore zibilak herrialdean ibiltzea debekatu zion lasterketari eta hamahirugarrenean Nafarroako Gobernuak lasterketa Iruñean sartzea galarazi nahi izan zuen Baina batean debekatzaileek berek atzera eginda bestean epaileek hala erabakita KORRIKA egin egin zen eta edizioz edizio parte hartze markak apurtzen jarraitu zuen

, , , , , , , , , , : ; . . - -

- C. AZKENIK, IDATZ ITZAZU AZKEN PASARTE HONETAN FALTA DIREN PUNTUAZIO-MARKA GUZTIAK.**

Hala ere urteetan boikot mehatxu elurte uholde eta abarrek ez dute lortu KORRIKA geraraztea beraz nekez lortuko du zomorrotxo batek Hala egun gutxi barru KORRIKA egin egingo da berriro ere hogeita bigarrenez eta Euskal Herri osoa euskararen aldeko zoro zoragarriz beteko du Nik neuk parte hartuko dut KORRIKAN zoro zoragari horietako bat izango naiz Eta zu



KORRIKAKO ISTORIO BITXIAK

KORRIKAn istorio bitxi asko gertatu dira, edizio hauetan guztietan. Ondoren, haien berri jasoko duzu: benetan gertatutako bi eta gezurrezko bat. Irakurri, eta saia zaituz gezurrezkoa zein den asmatzen. Gogoan izan faltsua identifikatzeko ez dela beharrezkoa KORRIKA oso ondo ezagutzea; nahikoa da berriak arretaz irakurtzea.

1. ISTORIOA

Behi eroak eta KORRIKA

2001eko udaberrian, "Mundu bat euskarara bildu" lelopean, 12. KORRIKak Gasteiz eta Baiona lotu nahi zituen. Egun haietan, baina, "behi eroen gaitza" zela eta, aztoratuta zebilen KORRIKak bildu nahi zuen mundua. Euskal Herrian, 2001eko otsailean agertu zen lehenengo kasua, Aezkoan (Nafarroa Garaia); bigarrena Azpeitian, hilabete geroago. Europako estatuen arteko susmoak agerikoak ziren, eta mugak itxiko ziren zurrumuruak ahoz aho zebiltzan.

KORRIKArean antolatzaileek ere entzunak zituzten zurrumuru haiek, baina inork ez zituen serio hartzen. Apirilaren 1ean, ordea, lasterketa Iparraldean zebilela, bertako hedabide batek berria zabaldu zuen: Frantziako Gobernuak mugak itxiko zituen, bai ibilgailuei bai oinezkoiei.

Albisteak kezka handia eragin zuen: igaro ahal izango ote ziren antolakuntzaren autoak eta ehunka korrikalariak mugaz bestaldera? Antolatzaile guztiek, dena den, ez zituzten berdin bizi izan une horiek: Hegoaldekoak erabat urduri zebiltzan; Iparraldekoak, ordea, lasai asko ziruditen. Ez zen gutxiagorako! Apirilaren lehena, berria zabaldu zen eguna, egun berezia da Frantziako Estatu osoan, Ipar Euskal Herria barne: *poisson d'avril* da, Inozente eguna. Azkenean, horixe izan zen guztia, hango hedabide baten txantxa.



Irunerako bidean, KORRIKArean ibilgailu eta parte-hartzaile guztiek alfonbra desinfektatzaile erraldoi baten gainetik zeharkatu behar izan zuten Behobiako zubia. Lasterketa, azkenean, arazorik gabe igaro zen Hegoaldera, baita, egun batzuk geroago, Iparraldera berriro ere, Ibardin mendatean barna, apirilaren 8an amaiera jendetsua baitzuen zain, Baionan.

2. ISTORIOA

KORRIKA Xtrem

Udaberria hasita egon arren, 15. KORRIKak alarma-egoeran aurkitu zuen Euskal Herri erdia, elurra zela kausa. Edizio hura Karrantzatik abiatu zen, martxoaren 22an. Bigarren egunean, Arabako Errioxan, Urizaharreko mendatea zeharkatu behar zen, eta errepidea itxita zegoen ibilgailu guztietarako; halere, Arabako Aldundia jakinaren gainean zegoenez, antolatzaileek espero zuten bidea garbi aurkitzea... harik eta aurreikusitako gabeko arazo batez ohartu ziren arte: mendateko hegoaldeko kilometro batzuk Arabatik kanpo daude; Errioxan, hain zuzen ere.



Mendatera iristeko ordu gutxi falta zirela, KORRIKAREN antolatzaileak Errioxako agintariekin jarri ziren harremanetan. Abisua berandu eman bazuten ere, Errioxa iragartzen zuen kartelera heltzean errepidea garbi aurkitu zuten; elurra kentzeko makina pasatu berri zen. Berrito Araban sartzeko unean, ostera, errepidea elur azpian desagertu zen.

Kateak jarrita, KORRIKA animatzen zuten autoak aurrera egiten saiatu ziren. Alabaina, gero eta elur gehiago zegoela ikusita, gailurrera iristeko lau bat kilometro falta zirenean ibilgailuek amore eman eta atzera egin behar izan zuten. Ez, ordea, KORRIKAK. Izan ere, korrikalari eta antolatzaile batzuek

gorantza jarraitu zuten elur artean, ahal izan zuten moduan, eta lekukoa mendatearen beste aldera eramatea lortu zuten.

Antolatzaileek lasaitu ederra hartu zuten kilometro batzuen buruan KORRIKAREN ibilgailuak berrito ikusi zituztenean. Akabo arazoak! Ez zekiten, orduan, nolako segada prestatzen ari zitzaizen Ebro ibaia Castejón aldean; ez zuten sumatzen, gizajo eta gajoez, nolako oztopo-lasterketa ari ziren diseinatzen agintari nafar batzuk KORRIKAREN sarrera Iruñean "animatzeko". Baina horiek beste istorio batzuk dira...

3. ISTORIOA

Ordubeteko aurrerapena

1993an 8. KORRIKA egin zen, eta, eskarmentuaren ondorioz, lasterketak gero eta hobeto funtzionatzen zuen. Hobekuntza nabarienteko bat, aurreneko edizioekin alderatuta, puntualtasuna zen. Arduradunentzat garrantzitsua zen lasterketa ordutegi ofizialean iragarritakoa baino beranduago ez iristea, parte-hartzaileak zain ez izateko; eta are garrantzitsuagoa zen behar baino goizago ez ailegatzea, lekukoa hartu behar zuten artean lekuan ez egoteko arriskua egon zitekeelako. Horretarako, KORRIKA irekitzen duen furgonetako kopilotuak, aldiro-aldiro, ordutegi ofiziala eta benetako ordua alderatzen zituen, lasterketa garaiz zihoala ziurtatzeko.

Martxoaren 29ko gau hartan ere horretan zebilen gidaria, adi-adi. Ordu gutxiren buruan Gasteizera iritsiko zen KORRIKA, eta garrantzitsua zen Arabako hiriburuan ahal zen puntualen sartzea. Baina goizaldeko bostetan, alarma piztu zen: KORRIKA Lagranen zegoen, ordutegiaren arabera seiak eta hiruan egon behar zen lekuan! Ordubeteko aurrerapena zeramaten!

44 kilometroan ordubete atzeratu behar zen KORRIKA, bai ala bai; eta antolatzaileek, kezkatuta, neurriak hartzeari ekin zioten: erritmoa ahal beste apaldu zuten; batzuetan, korrika atzerantz egiteko eskatzen zieten korrikalariei; errotondetan, bueltaka ibiltzen ziren... Baina planak ondo funtzionatu zuen, eta, Trebiñura heldu orduko, 50 minutu galduak zituzten.

Orduan, Arabako arduraduna igo zen furgonetara,



sutan, berandu zihoazela eta zertan zebiltzan tontakeriak egiten oihuka. Berandu? Nola "berandu"? Eta, bat-batean, okerraz ohartu ziren: gau hartan, martxoko ordu-aldaketa egin behar zen, eta erlojuak ordubete aurreratu behar ziren.

Pilak jarrita, erritmoa azkartu eta atzerapena ia ordu erdian txikitzea lortu zuten korrikalariek. Azkenean, kalteak gutxitu, eta 20 minutuko atzerapenez baino ez ziren iritsi Gasteizera. Hori bai, Trebiñutik Gasteizera arteko erreleboetan ibili zirenei nekez ahaztuko zaie edizio hartan eraman behar izan zuten abiada zoroa.

ETA KORRIKA LAGUNTZAILEA IZAN EZ BANINTZ?

Aldizkariaren azken orrian lekukotasun bitxi bat irakurri dugu. Bertan, lagun batek KORRIKA laguntzaile izan aurretik eta izan ondoren zer gertatzen zitzaion kontatu du. Ariketa honetan, egoera bestela planteatuko dugu. Irakurri egoera, eta berridatzi esaldiak iraganeko baldintzan, adibidean bezala.

A. ESKERRAK KORRIKA LAGUNTZAILE IZATEA PROPOSATU ZIDATENEAN BAIETZ ESAN NUELA. EZETZ ERANTZUN BANU...

1. Ez nuen lan bakarrean ere irauten.

Ez nukeen lan bakarrean ere iraungo.


2. Nire lagunek beti izaten zuten zeregin saihestezinen bat, nirekin ez geratzeko.

3. Nire katuak, Pituk, leihotik ihes egin zidan.

4. Arraintxoa ito egin zitzaidan.

5. Ez nekien zer zen semaforo bat berde aurkitzea.

6. Zure ustez, zer gehiago gerta zekizukeen KORRIKA laguntzaile egin ez bazina?

**A. TAMALEZ, KORRIKA LAGUNTZAILE IZATEA PROPOSATU ZIDATENEAN EZETZ ESAN NUIEN. BAIETZ ERANTZUN BANU...**


7. Lanak perretxikoen antzera ateratzen zaizkit.

8. Lagunak ezin dira ni gabe bizi.

9. Telefonoz gestioaren bat egiteko orduan, langile gizatiar batek hartzen dit, beti.

10. Infernua paradisu bilakatu zait.

11. Zure ustez, zer gehiago gerta zekizukeen KORRIKA laguntzaile egin bazina?



**PUNTUAZIO-MARKAK**

Hemen dituzu puntuazio-markak behar bezala idazteko arau batzuk:

1. Koma (,)

Irakurketan egin behar diren pausaldi laburrak edo txikiak markatzeko erabiltzen da. Honako kasu hauetan erabiltzen da, batik bat:

- 1.1.** Zerrendetan, esaldiko bi zati edo gehiago bereizteko, mota berekoak direnean eta segidan doazenean: "*Gaur goizean, azokan, harategian eta okindegian izan naiz*".
- 1.2.** Klausula bateko esaldiak bereizteko, pausaldia egiten denean: "*Kalera bazoaz, eros ezazu egunkaria*" / "*Eser zaitez, nekatu egingo zara-eta*".
- 1.3.** Deikia esaldiaren hasieran doanean, koma darama ondoan; perpausaren barnean dagoenean, koma artean jartzen da: "*Mikel, ekarri oinetako horiek*" / "*Aizu, Itziar, zatoz lehenbailehen*".
- 1.4.** Perpaus baten barruan, esandakoa argitzeko edo osatzeko beste esaldi bat tartekatzen denean, kontaera nagusia ebakitzen duen esaldi hori koma artean jartzen da: "*Koldo, Maiteren anaia, etxera joan da*" / "*Lurak arte edo, nire iritzia hori da behintzat, ez da etorriko*".
- 1.5.** Ondoko lokailuak esaldiaren barruan daudenean, koma artean idazten dira, eta esaldiaren hasieran daudenean, koma ondoan dutela idazten dira: *hau da, hots, esate baterako, azkenik, hala ere, izan ere, beraz, bukatzeko, adibidez, dena den, hortaz, orduan, bada, ordea, aldiz, berriz, besteak beste, bestalde, gehienetan, egia esan, gainera, -z gero, hain zuzen, esaterako, etab.*
- 1.6.** Bai eta ez bat baino gehiago izanez gero, koma jarriko dugu: "*Bai trenan, bai autoan, bai hegazkina ere, oso gogoko ditut*".
- 1.7.** Aditz berbera duten esaldi-segidan elipsia egiten denean: "*Idazkariak zortzi telefono-dei jaso ditu; idazkari-laguntzaileak, bost; eta menpekoak, hamar*".
- 1.8.** Eta, edo eta ala partikulen ondoren, zenbait kasutan: "*Gaixorik zegoela-eta, ez zen lanera joan*".
- 1.9.** Aposizioetan: "*Abenduaren 28an, Inuzentean egunean, ederki sartu ziguten ziria*".

2. Puntu eta koma (;)

Orokorrean, komak baino pausaldi luzexeagoa adierazten du. Honako kasu hauetan erabiltzen da:

- 2.1.** Klausula luze baten barruan dauden esaldiak bereizteko, baldin eta aurretik koma bat edo gehiago erabili badira: "*Larunbatetan, normalean, mendira joaten gara; igandeetan, aldiz, etxean geratzen gara*".
- 2.2.** Ideia beraren bi alde desberdin adierazten dituzten bi perpausen artean: "*Ezin dezakegu horrela jarrai; hondamendira goaz zuzen-zuzenean*".
- 2.3.** Bi esaldi, juntagailuz edo bestela, elkarri lotuta daudenean, baina,aldi berean, lotura hori hain xumea edo estua ez denean: "*Horrela bukatu zen hitzaldi zirraragarri hura; eta, ondoren, entzuleak poliki-poliki irten ziren*".

3. Bi puntu (:)

Bi puntuek pausaldi luzea adierazten dute. Baina, puntu bakarrak ez bezala, bi puntuek nolabaiteko segida edo argibidea adierazten dute. Kasu hauetan erabiltzen dira.

- 3.1.** Gutunetan, hasierako agurraren ondoren: "*Lankide hori: Jaso nuen zure gutuna...*".
- 3.2.** Norbaiten hitz testualak aipatzen direnean, bi puntu jartzen dira aipamenaren aurretik, hori maiuskulaz hasten delarik: "*Famatua da Sokratesen harako hura: Ezagut ezazu zeure burua*".

- 3.3.** Adibide gisa-edo, etsenpluak jarri nahi direnean, bi puntu jartzen dira zerrendaren aurretik: "Bokalez hasten diren zenbakiak "h" letrarekin idazten dira euskaraz, ehun izan ezik: hiru, hamar, hamaika, hamabi, hoge..."
- 3.4.** Zerrenda bat egiten denean, bi puntu jartzen dira aurretik: "Iparraldeko herrialdeak hiru dira: Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa".
- 3.5.** Proposizio orokorra ezarri ondoren, berehala beste esaldi batzuekin frogatzen edo azaltzen denean, horien aurretik bi puntu jartzen dira: "Horrela da bizitza: gutxien uste duzunean dator ezbeharra".

4. Puntua (.)

- 4.1.** Periodoak zentzu osoa duenean, puntua jartzen da azkenean; horrela, pausaldi luzea adierazten da.
- 4.2.** Lerro berean (puntu eta jarrai) edota hurrengo lerroan (puntu eta bereiz) jarri dezakegu. Horretarako, arrazoibidearen edo ideien segida hartzen da kontuan gehienbat. Alegia, aurreko periodoarekin segida estua dagoenean, puntu eta jarrai egiten da. Aldiz, ideien segidan pauso berri bat ematen denean, puntu eta bereiz. Izkribu edo testu baten bukaeran ipintzen den puntuari "azken puntua" esaten zaio. Puntuari dagozkion adibideak nonahi ikus daitezke.
- 4.3.** Laburduren ondoan ere puntua erabiltzen da: *adib. (adibidez), or. (orrialde), km. (kilometro)...*



ADI! KOMEK BIZITZAK SALBA DITZAKETE!

aek

22. korrika HITZETAN

Amurriotik Donostiara 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era



korrika.eus



MARTXOAK 31 OSTEAGUNA

Amurrio	16:30
Arespalditza	17:19
Artziniega	18:15
Balmaseda	19:29
Zalla	20:18
Gueñes	21:02
Gordexola	21:36
Okondo	22:06
Laudio	22:38
Ugao	23:51

Gasteiz (Elorriagako Atea)	21:00
Arkaute	21:47
Dulantzi	22:18
Heredia	23:04
Agurain	23:49

APIRILAK 3, LARUNBATA

Zalduondo	00:48
Egino	01:52
Olazti	02:34
Bakaiku	03:56
Ebarri	04:24
Lakuntza	05:09
Hiriberri	06:16
Urritzola	06:57
Ottobi	07:50
Berriozar	09:03
Iruñea	09:26
Antsoain	09:47
Iruñea	09:56
Burlata	10:10
Atarrabia	10:24
Uhartea	10:33
Sarriguren	10:54
Iruñea	11:15
Barahain	13:43
Zizur Nagusia	14:09
Noain	15:06
Espartza	15:48
Astrain	16:39
Uterga	17:20
Gares	18:02
Mendigorria	18:49
Artaxoa	19:43
Tafalla	20:59
Larraga	23:02

APIRILAK 4, ASTELEHENA

Irunberri	00:39
Domeño	01:18
Nabaskoitze	03:07
Burgi	04:45
Erronkari	05:58
Izaba	06:37
Uztarrotze	07:10
Itzaltzu	08:47
Otsagabia	09:07
Ekzarotze	09:20
Abaurregaina	10:45
Abaurrepea	11:08
Garralda	12:18
Aurizberri	13:10
Orreaga	14:02
Luzaide	15:45
D. Garazi	17:00
Lakarra	17:42
Lartabale	18:41
Donaixti	19:25
Muskildi	20:30
Maule	21:28
Xarrrikotapea	22:27

APIRILAK 3, IGANDEA

Lerin	00:34
Lodosa	02:40
Andosilla	04:22

San Adrian	04:48
Azagra	05:14
Cadreita	07:29
Corella	09:42
Cintruenigo	10:19
Tutera	11:45
Alesbes	15:44
Martzilla	16:38
Kaparrotsu	17:29
Zarrakaztelu	19:30
Kaseda	21:53
Gabarderal	22:35
Zangoza	23:01
Ledeia	23:40

APIRILAK 5, ASTEARTEA

Donapaleu	00:00
Iholdi	02:04
Ortzaize	03:11
Baigorri	03:52
Erratzu	05:55
Arizkun	06:15
Elizondo	06:47
Ziga	07:36
Berroeta	08:02
Almandoz	08:21
Arraitz	10:05
Larrainzar	10:44
Jauntsarats	11:49
Aldatz	12:48
Mugiro	13:21
Lekunberri	13:34
Iruztzun	15:29
Azantza	17:24
Genbe	18:39
Muetz	19:18
Lizarra	20:56
Iratse	21:41
Murieta	22:45
Antzin	23:05
Acedo	23:44

APIRILAK 6, ASTEZKENA

Kanpezu	00:40
Genevilla	01:15
Marañon	01:47
Bermeo	02:21
Baxauri	03:12

APIRILAK 7, OSTEAGUNA

Sestao	01:07
Trapagaran	01:31
Ortuella	02:00
Abanto	02:38
Muskiz	03:22
Zierbena	04:15
Santurtzi	04:52
Portugalete	05:29
Getxo-Romo	06:24
Leioa	07:06
Getxo-Algorta	07:26
Berango	08:19
Sopela	08:37
Urduliz	08:58
Gorliz	09:41
Gatika	10:42
Mungia	11:05
Bakio	12:21
Bermeo	13:23
Mundaka	14:20
Busturia	14:53
Gernika	15:38
Arteaga	16:35

APIRILAK 8, OSTIRALA

Deba	00:01
Zestoa	01:30
Zumaia	02:58
Getaria	03:55
Zarautz	04:26
Orio	05:21
Usurbil	06:26
Lasarte	07:11
Urmieta	08:13
Andoain	08:43
Billabona	09:55
Tolosa	10:40
Bidania	11:51
Errezil	12:23
Azpeitia	13:26
Azkoitia	14:07
Urretxu	15:49
Zumarraga	16:08
Ormaiztegui	17:00
Segura	17:46
Idiazabal	18:18
Lazkao	19:10
Beasain	19:36
Ordizia	20:09
Legorreta	21:01
Altzo	21:59
Tolosa	22:25
Ibarra	22:45
Berastegi	23:43

APIRILAK 9, LARUNBATA

Leizua	00:35
Ezkurra	01:53
Zubieta	02:54
Doneztebe	03:40
Sunbilla	04:06
Igantzi	05:07
Lesaka	05:40
Bera	06:17
Urruna	07:11
Azkaine	07:44
Senpere	08:23
Sara	09:34
Zugarramurdi	10:40
Ainhoa	11:21
Erpeleta	11:54
Itsasu	12:27
Kanbo	12:51
Hazparne	13:46
Haltsu	15:21
Uztaritze	15:48
Milafanga	16:33
Hiriburu	16:59
Baiona	17:28
Angelu	19:43
Biarritz	20:16
Bidarte	21:34
Getari	22:07
D. Lohitzune	22:20
Ziburu	23:10
Urruna	23:41

APIRILAK 10, IGANDEA

Hendaia	00:14
Irun	00:53
Hondarribia	01:39
Irun	02:21
Oiartzun	03:09
Orereta	03:44
Lezo	04:03
Pasaia	04:32
Astigarraga	06:19
Hernani	06:49
Donostia (Anorga)	07:36
Donostia (Parte zaharra)	09:05
Donostia (Amaiera)	12:30

22. KORRIKAREN ibilbidea

ERANTZUNAK

PUNTUAZIO-MARKAK

- A.** Horrela, 1980ko azaroaren 29an, euskaltzale adoretzu batzuk Oñatitik atera ziren korrika, lekuko bat eskuan zutela; eta hamar egunen buruan, abenduaren 9an, Bilboraino iritzi zen lekuko hura, eskuz esku pasatuta, Euskal Herria muturretik muturrera gau eta egun zeharkatu ondoren. Euskararen lurraldean, berriro ere, "Ezina, ekinez egina".
- B.** Edizio batzuetan, debeku-mehatxuei egin behar izan zieten aurre antolatzaileek: bigarren KORRIKAN, esaterako, Nafarroako gobernadore zibilak herrialdean ibiltzea debekatu zion lasterketari; eta hamahirugarrenean, Nafarroako Gobernuak lasterketa Iruñean sartzeari galarazi nahi izan zuen. Baina, batean debekatzailerik berek atzera eginda, bestean epaileek hala erabakita, KORRIKA egin egin zen, eta, edizioz edizio, parte-hartze markak apurtzen jarraitu zuen.
- C.** Hala ere, urteetan boikot, mehatxu, elurte, uholde eta abarrek ez dute lortu KORRIKA geraraztea; beraz, nekez lortuko du zomorrotxo batek. Hala, egun gutxi barru KORRIKA egin egingo da, berriro ere, hogeita bigarrenez, eta Euskal Herri osoa euskararen aldeko zoro zoragarriz beteko du. Nik neuk parte hartuko dut KORRIKAN, zoro zoragari horietako bat izango naiz. Eta zu?

KORRIKAKO ISTORIO BITXIAK. ERANTZUN ZUZENA ETA AZALPENA

Gezurrezko istorioa ordu-aldaketari buruzkoa da. Egia da, kontaketa esaten den bezala, 1983ko martxoaren 29ko gauean, data horietan ohi bezala, erlojuak ordubete aurreratu behar izan zirela: goizaldeko ordu bietan, hirurak jarrita; baina furgonetako kopilotua horretaz ohartu izan ez balitz, KORRIKA ordubete atzeratuta zihoala pentsatuko zukeen, ez kontrakoa.

ETA KORRIKA LAGUNTAILEA IZAN EZ BANINTZ?

- A.**
1. Ez nukeen (nuen) lan bakarrean ere irauko.
 2. Nire lagunak beti izango zuketuen (zuten) zeregin saihestezinen bat, nirekin ez geratzeko.
 3. Nire katuak, Pituk, leihotik ihes egingo zidakeen (zidan).
 4. Arraintxoia ito egingo zitzaidakeen (zitzaidan).
 5. Ez nukeen (nuen) jakingo zer zen semaforo bat berde aurkitzea.
- B.**
7. Lanak perretxikoen antzera aterako zitzaidakeen (zitzaidan).
 8. Lagunak ezin izango zirakeen (ziren) ni gabe bizi.
 9. Telefonoz gestioaren bat egiteko orduan, langile gizatiar batek hartuko zidakeen (zidan), beti.
 10. Infernua paradisu bilakatuko zitzaidakeen (zitzaidan).